

Gure enpresaren diru- sarrerak prezio aldakorrean oinarrituta egongo dira. Gure produktua 430 euroko prezioan ezarriko dugu, baina deskontuak egongo direnez,

diru sarrerak ere anitzak izango dira. Adibidez, 2 ile -lehorgailu erosterakoan, bigarrena %35-eko deskontuarekin joango da. Honekin bezeroek bat baino gehiago erostea lortuko dugu, nahiz eta berarentzako ez izan bere senide bati eros diezaioke, eta gero eta jende gehiagok izan gero eta gehiago erosiko dizkigute beraz diru sarrerak ere gorantz joango dira. Honez gain bazkide egiten bazara web-orrian hainbat motatako deskontuak ikus ditzazkezu beraz arlo honetan ere diru sarrerak ezberdinak izan daitezke.

Ordainketari dagokionez, nahiz eta ordainketa bakar batean egin, guk modu ezberdin batean egitea pentsatu dugu. Familia askoren kasuan ezinezkoa dute gastu hau ordainketa bakar batean ordaintzea beraz 3 ordainketa ezberdinetan egitea posiblea izango da. Etxeko zerbitzuaren kontuak ere bere kostuak izango ditu eta ulerkorra den moduan ,Euskal Herrian kokatuta baldin bagaude ez du kostu berdina izango Madrilera eraman behar baldin badugu edota Andaluziara. Horretarako, egindako kilometroak hartzen ditugu kontuan, 10 euro 100 kilometroko.